opusdei.org

# Gaztebideo, hamasei urtez gazte-zinema bultzatuz

Indar Gazte Elkarteak, Opus Deiko zenbait kideek Gasteizen sustatutako iniziatibak, 1993an Gaztebideo, Gazteen Bideo Jaialdia antolatu zuen, gazteei zuzendutako zaleen film laburren jaialdi bat

2008 Aza 20

Version en castellano

Ia hamar urte bete ondoren, Jaialdia ez da desagertu, baizik eta ospea eta

jarraitzaileak bereganatu ditu. Joan den astean, 16. Jaialdiaren sariaren emanaldian, Euskal Herriko eta mundu guztiko 500 bat gazte mobilizatu zituen.

Juana Macías ezezaguna zen 97an Gaztebideo Gazte Zinemaren Jaialdian lehen saria jaso zuenean. Urte gutxi batzuk geroago Espania osoko kazetalarien deia jasotzen zuen bere telefono mugikorrean. Film labur onenaren Goya saria irabazi zuen. Agian hau ez da izango parte hartzaile guztien ibilbidea, baina bai ordea astialdietan beren zaletasunen bat landu ahal izatea. Horixe da INDAR Gazte Elkarteak bilatzen duen helburua eta horretarako lehiaketa hau eskaintzen jarraitzen du gazteenei.

Jaialdiaren baldintza bakarra da aktoreek 21 urte bano gutxiago izan behar dutela. Horregatik gazteen erakundeei, ikastetxeei, edo

asteburuko botiloiari alternatiba bilatzen dioten lagun taldeei zuzentzen zaie.

“Ezaugarri haueko lehiaketa honen iraunkortasunak urtez urte izan duen harrera ona adierazten du. Neurri handi batean, mota honetako ia bakarra izateak ekarri dio arrakasta” diote antolatzaileek. Bideo jaialdiak gehienetan produkzio profesional edo erdi-profesionaletan biltzen dira, baina ez dago aktore gazte eta errealizadore *amateur*ek egindako eta argumentu produkziotara zuzendutakorik. Bideoaren alderdi honek baliteke merkatariza interes eskasa izatea, baina badu interesa –handia gainera– kultura eta hezkuntza ikuspuntutik” azpimarratzen dute INDAR-etik.

Jaialdiaren sendotze honen seinale bat da Juana Macías – Gaztebideoko lehen sariaren irabazlea 1997an

*Vampirator*-ekin, espainiar film labur onenari zuzendutako Goya saria irabazi izatea, *Siete cafés por semana*-rekin. Baita ere, zinema munduko personaia hain garrantzitsuak diren Carlos Sobera, Narciso Ibáñez Serrador edo Xabier Elorriaga epaimahaiaren kide izatea onartu dutela –epaimahaian beti ikus-entzunezko munduan profesional ospetsuak direnak parte hartzen dute–. Gaztebideok ohoretzat dauka ere Bernardo Atxagaren lehen zinema egokitzapena hartzea, *Aitona Martin eta biok*, Arabako Araia herriko ikus-entzunezko lantegi batek errealizatuta.

16 urte hauetan zehar Holanda, Frantzia, Portugal eta Italiako filmek parte hartu dute, hala nola Estatuko hiri askotakoek. Azkeneko lehiaketan azken faserako, non aukeratutako filmak ikusi eta sariak banatzen diren, 17 film labur sailkatu ziren, Huelva, Almeria, Huesca, Lleida,

Araba, Guadalajara, Madril, Pontevedra, Bizkaia, Logroño, Palma de Mallorca, Valentzia eta Amsterdametik zetoztenak.

Jaialdi honetako ezaugarrietako bat hizkuntza irekitasuna izan da, zenbait parte hartzaileek eskertu dutena. Ondoz ondoko edizioetan hizkuntza hauetan aurkeztu dira filmak: euskara, gaztelania, katalan, galiziera, nederlandera, frantses, portuges eta italiera.

INDAR datorren urteko lehiaketan pentsatzen ari da dagoeneko eta, bitartean, zenbait ekitaldi prestatzen bere bazkideentzat Gasteizen.

< a name="cast">Versión en castellano</a> La Asociación Juvenil Indar, iniciativa formativa promovida por personas del Opus Dei en Vitoria-Gasteiz, se lanzó en 1993 a organizar el Festival de Vídeo Juvenil Gaztebideo, un festival de cortometrajes amateurs dirigido a

gente joven. Casi una década después lejos de desaparecer, el Festival cobra prestigio y seguidores. La semana pasada realizó la entrega de premios de su edición 16 en la que movilizaron a medio millar de jóvenes vascos y de todo el mundo.

Juana Macías era una desconocida cuando recibió el primer premio del Festival de Cine Juvenil Gaztebideo en el año 97. Pocos años después recibía en su móvil la llamada de periodistas de todo España, había ganado el Goya a mejor cortometraje. Tal vez, no sea este el camino de todos los participantes, pero sí el haber podido cultivar una afición durante su tiempo libre. El objetivo que persigue la Asociación Juvenil INDAR y con el que sigue ofreciendo un certamen abierto a los más jóvenes.

El único requisito del Festival es que la mayoría de los actores sean

menores de 21 años. Por ello, se dirige tanto a organizaciones juveniles, centros educativos o grupos de amigos que buscan una alternativa al botellón durante el fin de semana.

“La larga permanencia de un certamen de estas características es un claro indicio de la buena acogida que ha ido teniendo año tras año. Este éxito se debe en gran medida a su carácter casi único en su género”, explican sus organizadores. Los festivales videográficos tienden a centrarse en producciones profesionales o semi-profesionales, pero apenas existen dirigidos específicamente a producciones argumentales realizadas con actores jóvenes y por realizadores amateurs. “Esta faceta del vídeo puede contar con poco interés comercial, pero tiene -y mucho- interés desde el punto de vista cultural y educativo”, revindican desde INDAR.

Un indicio de la consolidación del festival es que Juana Macías, ganadora del primer premio en el Gaztebideo del año 1997 con *Vampirator*, obtuvo el Goya al mejor cortometraje español con *Siete cafés por semana*. También el hecho de que personas tan importantes en el mundo cinematográfico como Carlos Sobera, Narciso Ibáñez Serrador o Xabier Elorriaga, hayan aceptado ser miembros del jurado, compuesto siempre por prestigiosos profesionales del mundo audiovisual. Otro honor que ostenta el Gaztebideo es haber recibido la primera adaptación cinematográfica de Bernardo Atxaga, *Aitona Martín eta biok*, realizado por un taller de artes audiovisuales de la localidad alavesa de Araia.

A lo largo de estos 16 años han participado cintas de Holanda, Francia, Portugal, Italia y numerosas ciudades del Estado. En la última

edición se clasificaron para la fase final, en la que se proyectan las películas seleccionadas y se hace la entrega de premios, 17 cortometrajes, procedentes de Huelva, Almería, Huesca, Lleida, Álava, Guadalajara, Madrid, Pontevedra, Bizkaia, Logroño, Palma de Mallorca, Valencia y Ámsterdam.

Uno de los rasgos distintivos de este festival es su apertura lingüística, que ha sido agradecida públicamente por varios participantes; en las sucesivas ediciones se han presentado películas en euskera, castellano, catalán, gallego, holandés, francés, portugués o italiano.

INDAR piensa ya en la edición del año que viene y mientras tanto, diseña diferentes actividades en su sede de Vitoria-Gasteiz para todos sus socios

pdf | document generated automatically from https://opusdei.org/eu-es/article/gaztebideo-hamasei-urtez-gazte-zinema-bultzatuz/ (2025 Api 20)